

# PARTICIPACIÓN CIUDADANA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2015/11/17

Saila	Laburpena
<b>Alkatezta</b>	Udalaren webgunean aurreko bileretako galderen laburpena ez egoteagatik kexatu dira.
<b>Alkatezta</b>	Auzokide batek zalantzan jarri du Legarreko beheko aldean piboteak jartzeko beharra.
<b>Alkatezta</b>	Legarreko eskailera mekanikoak estaltzea aurreikusten den galdetzen du.
<b>Alkatezta</b>	Udalak Mirafloreseko auzokoekin bilera bat egin dezala eskatu dute.
<b>Alkatezta</b>	Hauxe planteatzea eskatu dute: San Juan kalea eta Ardantza 1 lotzen dituen igogailuaren kuota ordaintzeari uztea eta hura edozeinek erabiltzekoa izatea.
<b>Alkatezta</b>	Jakin nahi dute zer balorazio egin duen Udalak Legarren trafikoaren antolamenduaz egindako inkestari buruz.
<b>Obrak</b>	Auzokide batek Legarre Gain kaleko 8.erako sarbideak hobetzeko eskatu du. Beraren esanetan, ez dago eraikin horretarako sarbiderik, eta horrek komunikazio arazo handiak eragiten ditu eremuan.
<b>Obrak</b>	Kexaka daude eragozpenak eragiten dizkietelako pasealeku berria egiteko obrek. Udalak gehiago arduratu beharko zukeen auzokideez.
<b>Obrak</b>	Egoitzatik gertu dagoen semaforoan koloreak kokapenez aldatuta daudela kexatzen dira.
<b>Obrak</b>	Mekolako aldapa berriro asfaltatzea eskatu dute. Nahiko egoera txarrean dagoela adierazten dute.
<b>Obrak</b>	Arratebide 16aren eta 18aren arteko espaloia egitean inprobisazioz jokatu zela kexatu egin dira.
<b>Obrak</b>	Itzioko goiko aldean biribilgune bat egitea proposatu dute.
<b>Obrak</b>	Trenbidearen gaineko pasealeku berriaren aldean paperontziak jartzea eskatu dute.

# PARTICIPACIÓN CIUDADANA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2015/11/17

Saila	Laburpena
<b>Obrak</b>	Kale osoa berriro zoru ez labaingarriz asfaltatzeko eskatu dute, batez ere, auzotik irteteko zatian, horretan, berriztatu ondoren, ez labaintzeko tratamendurik gabeko porlanezko zorua geratu zelako.
<b>Obrak</b>	Auzoko irteeran oinezkoentzako pasabide bat jartzeko eskatu dute, arriskurik gabe pasatu ahal izateko beste aldeko espaloira.
<b>Zerbitzuak</b>	Itzio aldean hainbat trafiko-seinale oso baxu daudela kexatu dira. Udalbusen ordutegi-kartela baxu dago, eta oinezkoek kolpea hartzeko arriskua dago.
<b>Udaltzaingoa</b>	Legarreko beheko aldean bi noranzko jartzeko aukera aztertzeke eskatu dute.
<b>Udaltzaingoa</b>	Legarreko trafikoaren antolamenduaz egindako inkesta egitean, inprobisazioz jokatu zela kexatu dira.
<b>Udaltzaingoa</b>	Mekola 5-6 inguruetan kale-zurruta egiten delako, asteburuetan batez ere, kexatu egin dira.
<b>Udaltzaingoa</b>	Non aparkatu daitekeen eta non ez zehazteke eskatu dute.
<b>Udaltzaingoa</b>	Eskatu dute Mirafloreseko auzoan egiten dituen ibilbideetan, Udaltzaingoa galarazi dezala zaborrak, txatarra edo bestelako materialak pilatzea hainbat gunetan.
<b>Zerbitzuak</b>	Argibideak eskatu dituzte telebista seinaleaz. (Zenbait etxebizitzatan arazoak daude)
<b>Zerbitzuak</b>	Kale-garriketa kale osoan egin dadila eskatu dute. Gaur arte, ez zen 9. Zenbakitik gora garbitzen.
<b>Zerbitzuak</b>	Arekak eta estolda-zuloak garbitzea eskatu dute, udazkenean batez ere.
<b>Zerbitzuak</b>	Auzokide batek olio birziklatzeko edukiontzea jartzeko eskaera egin du.

# PARTICIPACIÓN CIUDADANA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2015/11/17

Saila	Laburpena
<b>Zerbitzuak</b>	Beira birziklatzeko edukiontzi bat jartzea eskatu dute.
<b>Zerbitzuak</b>	Kale-argiak konpondu eta mantentze-lana egiteko eskatu dute.
<b>Zerbitzuak</b>	Bonbilla erreta duten kale-argiak konpontzeko Legarre Gain 9ko dorrearen beheko aldetik Arratebide 5-7-9ra doan korridorean eskatu dute.
<b>Zerbitzuak</b>	Legarre Gain 11ren pareko iturria libratzeko eta haren oinarrian dagoen jarria konpontzeko eskatu dute.
<b>Zerbitzuak</b>	Menditik Miraflores kalera sartzen diren sastrakak mozteko eta mantentze-lanak era jarraituagoan egiteko eskatu dute.
<b>Zerbitzuak</b>	Arratebide 20ko eskaileretan sastrakak garbitzeko eskatu dute.
<b>Zerbitzuak</b>	Arratebide 18aren parean kale-argi bat konpontzeko eskatu dute.
<b>Zerbitzuak</b>	Arratebide 17B-ko garaje baten jabea kexatu da hango garajeek hezetasun arazoak dituztela duela hainbat urte Mankomunitateak libratze-lanak egitean hodiak apurtu zirenetik.
<b>Zerbitzuak</b>	Arratebide 16aren pareko eskailera-ataletan gehiago garbitzeko eskatu dute.